

Prentsarekikoa aspaldiko eztabaida-gaia da Ezker Abertzalean. Ajuria Eneko itunaren ondoren HBrekiko blokeoa prentsara iritsi zenetik harremanak gogortzen joan ziren. 1991eko udazkenean Gasteizen «Gizarte mugimenduak eta komunikabideak» izenburupean antolatutako ihardunaldientan parte hartu genuen hainbat kazetarik zenbait unibertsitarirekin batera. Gogoan ditut Amatiño, Mariano Ferrer, Ramon Zallo, Santacilia, Oleaga... Komunikabideetako zuzendari eta eragin handiko pertsonak. Desblokeo baterako abiapuntu izan zitekeena —HB mahainguruetatik kanpo uzten, bere barne paperak etengabe filtratzen, preso politikoen egoera ahazten eta mugimendu abertzaleak etengabeko erasoak salatzen zituen panorama hartan— laster geratu zen deusetan. Jarrairen txartel famatuak etorri ziren gero... eta ETArekin orain arteko azken agirian komunikabideetako GALa salatzen zen. Eta komunikabide baten kontrako atentatu baten zain daude asko, beldurrez.

ALGERREKO hausturak iragartzen zuen logika errukirik gabe doa aurrera. Ajuria Eneko itunetik landatutako isolamendu politikak bere fruitua eman du, eta ziurrenik printzipioen aplikazio estriktoz ETArekin zer hitzeginik ez zegoela uste zuen askok zer pentsatua izango du, bukatzeaz omen dauden «lau katu» hauek ematen dituzten hatzaparkadekin. Hesiarren beste aldean, aukerak «edo errenditu edo borrokan jarraitu» dilemara mugatzen badira, nekez ikusten da erdibiderako lekurik traiziotzat ulertuko ez denik.

Eta orain ondorioek mintzen dituzten alde guztietako politikariek, eltzeari presioa kentzeko ahalegin berezi bat zor diote Herri honi. ETA eta ezker abertzalea konbentzitu baldintza hauek bere kapitala xahutu eta suizidiora doala. Eta Ajuria Eneko indar nagusien buruan sartu isolamenduak enkistamendu garestiegi bat lekarkeela. Zergatik ez lehen keinua Ajuria Eneko egin?

PELLO ZUBIRIA